

1. Ez gaitzatela nahasi, irundar; ultra-eskuina da (I): hiritar-patruilak.

Aitortza zintzo bat eginez hasi nahiko genuke: **zinez kezkatuta gaude azken ikasturtean Irunen joera arrazistak biderkatzen eta normalizatzen ikusi ditugulako.** Eta zintzotasun osoz: ez zaigu batere gustatzen horrek proiektatzen duen Irun; gorrotoz eta biolentziaz beteriko hiririk ez baitugu nahi. Historikoki harrera-herria izan da Irun, etorkinei irekia eta etorkinekin egina. Hiriaren bizkar-hezur diren langile-auzoak ditugu horren lekuko, baita 2018an irundar andanak sortu zuen Harrera Sarea ere, pasoa den orori lagundu dion ekimen eredugarria. Ezin dugu onartu ultra-eskuinak bere interes politikoaren mesedetan hori aldatzea. Ez gaitzatela nahasi, Irunen ez dugu elkarbizitza arazorik, ultra-eskuin taldeen injerentzia baizik.

Gure kezkaren zergatiak azaltzeko, **egin dezagun memoria ariketa xume bat.**

Ikasturte honetan soilik, jazotako gertakariak dira honako hauek: “Devenir Europeo” taldetxo neonaziaren erasoak nozitu ditugu, atzerriarren denden kontrako erasoen berri izan dugu, aktibista antifaxistek jazarpena sufritu dute, sare sozialetatik “ehiza” deialdiak izan dira Irunen “moroen” kontrako biolentzia sustatzeko asmoz, Zubia gizarteratze zentroaren kontrako ekimen-arrazistak ezagutu ditugu (Telecinco-ren zabor-erreportajea barne), Bidasoan ezarritako muga arrazista indartu egin du Frantziako gobernuak, hamarnaka pertsonak jatorri magrebtarreko pertsona bat jipoitu dutela jakin dugu... eta hori gutxi balitz, Irunen hiritar patruilen sorrera ezagutu dugu.

Ustezko “hiritar-patruilek” aipamen nabarmena merezi dutela uste dugu. Sustatzaileek, orain, diskurtso baketsuagoa erabili arren (itxuraz ChatGpt erabiltzen ikasi dute), Antxeta-Irratiak eginiko erreportajeak agerian utzi ditu: segurtasunaren izenean ari direla dioten arren, arrazakeria zuritu, antolatu eta magrebtarren kontra biolentzia gauzatzeko taldeak dira.

Haien sare soziala, *Lo vi en Irun* esate baterako, magrebtarren kontrako gorroto haztegia da. Modu mespretxagarrian “urdaiazpikoari alergiko” esaten diete magrebtarrei, bideo umiliagarriak zabaltzen dituzte (asko buloak), haiek non akabatuko lituzketen iradokitzen dute, horiek jipoitzeko materialen berri ematen dute (borra-luzagarriak non erosi, esaterako). Gainera, patruilek zabalduko bideoetan ikusi dezakegu ikur ultra-eskuindarra duten pertsonak, *punisher* (edo zigortzaile) logoa kasu, jendea jazartzen dutela. Zein eskubiderekin? Batere, bistan da.

Larriagoa dena zera da, *modus-operandi* hori ezagutzen dugula. Trintxerpen edo Egian ikusi **dugu:** ultra-eskuindarrek bizilagunen kezkari tiraka Whatsapp taldea antolatzen dute “defenda dezagun gurea” lelo Trumpista erabiliz. Whatsapp-taldea puztu dutenean hura gorrotoz eta buloz betetzen dute, bizilagunak etorkinen, eta bereziki, magrebtarren kontra jartzeko. Giroa berotuta, edozein gertakari nahikoa da txinparta eragin eta “ehiza” arrazista baterako deia egiteko. Kaleko istilu-arrazistak ultra-eskuinaren agendaren mesederako dira. Zergatik? Segurtasun ezaren pertzepzioa areagotu eta ordenaren beharra elikatuz joera autoritarioak indartzen dituztelako.

Manuala idatzia dago, izan ere, hiritar-patruilak ultra-eskuinaren estrategiaren giltzarri nagusia dira: Estatuan, baita European ere, segurtasunaren kezka erreala erabiltzen dute hiritar xumeak erakarri eta ideologia arrazista-oldarkorra duten antolakundeetan enkoardatzeko. Kontrakoa dioten arren, haiek, patruilek, segurtasun-eza eragiten dute (inor seguruago sentitzen al da itxura txarreko 15 *muskulito* bere auzotik modu oldarkorrean patruilatzen ikusten baditu?) eta horrela hauspotzen duten profezia betetzen dute: hain zuzen, kalean segurtasun falta nabaria dela.

Horregatik dira horren arriskutsuak; ultra-eskuindarra ez den hiritarra, zu ere, irundar, limurtzera iritsi daitezke, azti ez bazaude.

Irunen hasiak gara arrisku hori nabaritzen: ziur gara, *Lo vi en Irun* taldera lotu diren guztiak ez direla ultra-eskuindarrak. Bestalde, hor dauden bitartean, eta bertan den ideologia ultra zabaltzen duten heinean, estrategia eskuindarraren mesedetan den espazio batean daude. Hor barruan bazaude, borondate osoz eta ez kuxkuxeatzeko bakarrik, ultra-eskuinak erabilia zara, irakurle.

Gauzak argitzen joango dira, ziur, baina azken informazioek Irungo Hiritar Patruilen iturburu ultra-eskuindarra baieztatuko lukete: erabat konfirmatua ez dagoenez, ez ditugu izen-abizenak aipatuko, baina itxuraz, estatu mailako telebista saio-eskuindarretan ohikoa den irundar bat, militar-ohia bera, eta “autodefentsa” zuri eta oldarkorraren ideologoa, Irungo talde hauen atzean egon daiteke. Horrek, bi kontu argituko lituzke, gutxienez: 1) Patruilek izan duten antolatze-trebezia, zeinak adierazten duen badela organizazio militar-polizialaz dakien norbait atzetik; eta 2) Telecinco-k Iruni eskainiriko tartea. Normala ote da, bizilagun batzuek eduki arrazista duen bideo xume bat sareetara zabaltzeko eta gero, Telecincok kazetaria bidaltzea Irunera erreportajea egiteko? Zubia gizarteratze zentroarekiko bizilagun taldetxo batek dituen kexen harira gertatu da. Gure ustez ez. Uste dugu badela ezagutzen ez dugun konexio bat, Irun-Madril eta Telecinco bezalako hedabide handiak lotu dituen eta interes partekatuan ari dena: Irunen agenda ultra indartzeko, arrazakeria biolentzia hauspotzeko.

Irundarrok segurtasunarekiko izan dezakegun kezka erreala da, baina ez gaitzela engainatu, eta konbentzitu gaitezen: eskuinak sortu dituen krisien aurrean, beti izan du estrategia bera: txiroa baztertuta dagoenaren kontra jartzea; edo bestela esanda “azken aurrekoaren eta azkenaren kontrako gerla xaxatzea”. Arrazakeria bide hori urratzen ari da. Horrela egin zuen faxismo historikoak, eta lehengo lepotik burua garai horiekiko nostalgikoak direnak: XXI. mendeko hiritar-patruilak, XX. mendeko *squadristi*-en alkandora beltzen eguneraketa gaurkotua dira.

Hiritar-patruilei buruz asko hitz egin genezake, eta tamalez egin beharko dugu, baina oraingoz amaitzeko bi gomendio. Lehena, “Los Simpsons” ikusi, hiritar-patruilak antolatzen dituztenekoa. Bigarrena, irakurri Demokrazia Nazionaleko talde ultrako presidenteak, Chaparro, Irunen jarraitzaileak dituen, bidenabar, bere jarraitzaileei esandakoak. Chaparro Madrileko migratzaileak hartzeko zentro baten kontrako manifestaldian zen hitz hauek oihukatu zituen: “si ellos forman sus bandas magrebíes, nosotros tenemos el derecho legítimo de crear patrullas ciudadanas, tenemos derecho a defendernos!”.

Chaparro Blanquerna liburutegiaren kontrako erasoan hartu zuen parte, 2013an. “Vamos a derramar hasta la ultima gota de sangre por un ideal, hay que dirigir las protestas, y radicalizarlas” izan zen bere kideei luzatu zien mezua. Orain badakigu helburu horiek lortzeko bideak direla hiritar-patruilak eta magrehtarren kontrako “ehizak”. Irungo “salbatzaile Trumpistek”, gure hiria defendatuko dutela agintzen duten horiek, antzeko diskurtsoa darabilte, ez bada zuzenean Chaparrori kopiatua.

Baina, galdegin zeure buruari, irundar: zer balizko magrehtar talde dira horiek? Eta zeren aurrean auto-defentsa? Eta bereziki... zer ideal? Auskalo, baina zinez diogu, irundar, ideal horiek ez dira gureak, ezta gure hiriarenak ere. Gainera, eta amaitzeko... inork uste al du, benetan, petoz jantzitako 15 pertsonak, super-ekipatuak diren segurtasun-indarrek baino hobe berma dezaketela hiriko segurtasuna? Erotu egin gara, edo zer?

Gure hirian hau guztia jazotzen ari dela, zein izan da erakunde publikoen erantzuna? Zer ardura-publiko izan du Irungo Udalak honen guztiaren aurrean?

Iruten, 2025-07-21

Bor-Bor Hausnarketa kolektiborako plaza.

1. Que no te confundan, irundarra; se trata de la ultraderecha (I): sobre las patrullas ciudadanas.

Queremos empezar con una confesión sincera: estamos profundamente preocupados por la creciente normalización de las tendencias racistas que hemos observado en Irun durante este último curso. Y, con toda honestidad: no nos gusta nada el Irun que esto proyecta; no queremos una ciudad llena de odio y violencia. Históricamente, Irun ha sido una ciudad de acogida, abierta y construida entre todas. Los barrios obreros, que son la columna vertebral de la ciudad, dan fe de ello, al igual que la red de acogida Harrera Sarea de Irun, creada en 2018 por cientos de irundarras, un ejemplo de solidaridad hacia quienes pasan por aquí en su ruta migratoria. No podemos permitir que la ultraderecha cambie eso en beneficio de sus intereses políticos. Que no nos confundan: en Irun no hay un problema de convivencia, sino de injerencia por parte de grupos ultraderechistas.

Para explicar las razones de nuestra preocupación, hagamos un pequeño ejercicio de memoria.

Solo en este curso, hemos presenciado los siguientes hechos: ataques del grupúsculo neonazi *Devenir Europeo*, agresiones contra tiendas de extranjeros, acoso a activistas antifascistas, llamamientos en redes sociales a "cazar moros" para promover la violencia en Irun, acciones racistas contra el centro de integración Zubia (incluyendo un reportaje basura de Telecinco), el refuerzo de la frontera racista en el Bidasoa por el gobierno francés, la paliza a una persona de origen magrebí por parte de una decena de individuos... y, como si fuera poco, hemos conocido la creación de patrullas ciudadanas en Irun.

Creemos que las supuestas "patrullas ciudadanas" merecen una mención especial. Aunque sus promotores ahora usen un discurso más pacífico (aparentemente han aprendido a usar ChatGPT), los reportajes de Antxeta Irratia han dejado claro que, aunque digan actuar en nombre de la seguridad, en realidad son grupos organizados para blanquear el racismo y ejercer violencia contra personas magrebíes. En especial contra pobres, y jóvenes.

Sus redes sociales, como *Lo vi en Irun*, son un caldo de cultivo de odio antimagrebí. Se refieren a ellos de manera despectiva como "*alérgicos al jamón*", difunden videos humillantes (muchos de ellos bulos), insinúan dónde podrían "*liquidarlos*", y comparten información sobre material para golpearlos (dónde comprar porras extensibles, por ejemplo). Además, en los videos difundidos por estas patrullas, se ve a personas con simbología ultraderechista —como el logo del *Punisher* (el Castigador)— acosando a gente. ¿Con qué derecho? Con ninguno, evidentemente.

Lo más grave es que conocemos este *modus operandi*. Lo hemos visto en Trintxerpe o Egia: ultraderechistas organizan grupos de WhatsApp aprovechando las preocupaciones vecinales, usando el eslogan trumpista "*defendamos lo nuestro*". Una vez que el grupo crece, lo llenan de odio y bulos para enfrentar a los vecinos contra migrantes, especialmente magrebíes. Con el ambiente caldeado, cualquier incidente sirve como chispa para llamar a una "*cacería*" racista. Los disturbios callejeros racistas benefician la agenda ultraderechista. ¿Por qué? Porque alimentan la percepción de inseguridad y refuerzan las tendencias autoritarias.

El manual ya está escrito: las patrullas ciudadanas son clave en la estrategia de la ultraderecha. En el Estado, y en Europa, usan el miedo legítimo a la inseguridad para reclutar a ciudadanos comunes y encuadrarlos en organizaciones de ideología racista y violenta. Aunque lo nieguen, estas patrullas generan inseguridad (¿acaso alguien se siente más seguro al ver a 15 musculitos de actitud agresiva patrullando su barrio?) y así cumplen su propia profecía: "*miren, en las calles no hay seguridad*".

Por eso son tan peligrosas: pueden engatusar incluso a irundarras que no son ultraderechistas, si no están alerta.

En Irun ya empezamos a percibir ese peligro: estamos seguros de que no todos los vinculados a *Lo vi en Irun* son ultraderechistas. Pero mientras estén ahí, y mientras difundan esa ideología ultra, forman parte de un espacio que sirve a la estrategia de la derecha. Si estás dentro, voluntariamente o simplemente por curiosidad, la ultraderecha te está usando, irundarra.

Con el tiempo se aclararán las cosas, pero los últimos datos apuntan a un origen ultraderechista de las Patrullas Ciudadanas de Irun: aunque no está totalmente confirmado (por eso no daremos nombres), todo indica que detrás podría estar un irundarra habitual en programas televisivos de derecha estatal, exmilitar y promotor de una ideología de "*autodefensa*" blanca y violenta. Esto explicaría al menos dos cosas: 1) La habilidad organizativa de las patrullas, que sugiere el respaldo de alguien con conocimientos policial-militares; y 2) El espacio dedicado a Irun en Telecinco. ¿Es normal que, tras subir un vecino un video racista a redes, Telecinco envíe a un periodista a hacer un reportaje a Irun? Ocurrió con las quejas de un pequeño grupo de vecinos contra el centro Zubia. Nosotros creemos que no. Hay una conexión oculta entre Irun, Madrid y grandes medios como Telecinco, con un interés común: fortalecer la agenda ultraderechista en Irun y alimentar la violencia racista.

Podríamos hablar mucho más sobre las patrullas (y lamentablemente tendremos que hacerlo), pero por ahora, dos recomendaciones: Primera, ver *Los Simpson*, el capítulo en el que Homer organiza patrullas. Segunda, leer lo que dijo el presidente del grupo ultraderechista *Democracia Nacional*, Chaparro —que tiene seguidores en Irun— a sus militantes: "*Si ellos forman sus bandas magrebíes, nosotros tenemos el derecho legítimo de crear patrullas ciudadanas, ¡tenemos derecho a defendernos!*".

Chaparro participó en el ataque a la biblioteca Blanquerna en 2013. Su mensaje a sus seguidores fue: "Vamos a derramar hasta la última gota de sangre por un ideal, hay que dirigir las protestas y radicalizarlas". Ahora sabemos que las patrullas ciudadanas y las "cacerías" antimagrebíes son sus herramientas para lograr esos objetivos. Los "salvadores trumpistas" de Irun, esos que prometen defender nuestra ciudad, repiten exactamente el mismo discurso, cuando no un plagio descarado de Chaparro.

Pero pregúntate, irundarra: ¿Qué supuestas bandas magrebíes existen aquí? ¿Y contra qué necesitan "autodefenderse"? Y sobre todo... ¿qué "ideal" defienden? Digámoslo claro: esos ideales no son los nuestros, ni los de nuestra ciudad. Y una última pregunta: ¿Alguien cree realmente que 15 tipos disfrazados de Rambo, superequipados, pueden garantizar mejor la seguridad que las fuerzas policiales profesionales? ¿Estamos locos o qué?

Mientras esto ocurre en nuestra ciudad, ¿cuál ha sido la respuesta de las instituciones públicas? ¿Qué responsabilidad ha asumido el Ayuntamiento de Irun ante todo esto?

Irunen, 2025-07-21

Bor-Bor Hausnarketa kolektiborako plaza.

